

2010-09-13ean EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO  
BILKURA

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día  
13-09-2010

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria.  
Edorta Barandiaran García  
Ander Agiriano Errasti  
Begoña Eraña Lazkano  
Maidier Otamendi Tolosa  
Karmelo Leceta Abasolo  
Ignacio Pierrugues Barberán  
Unai Salaberria Mugica

#### Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko irailaren hamahiruan, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarra, ez ohiko osoko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira bertan izan Urrutia jauna eta Merino jauna..

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día trece de setiembre de dos mil diez, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. Urrutia y el Sr. Merino



## **1.- Gai zerrendan gai bat sartzea berrestea.**

Informazio batzordeak derrigorrez egin beharreko diktamenik ez dagoenez, Udalbatzarrak aho batez berretsi du ondorengo gaia gai zerrendan sartzea:

*GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETARI ETA HIRI HONDAKINEN TRANSFERENTZIA ETA TRATAMENDURAKO ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO ERREGELAMENDUARI AUZI ERREKURTSOA JARTZEA.*

## **2.- KREDITUAK ALDATZEKO 13. ESPEDIENTEA.**

Udal honen aurrekontuari dagokion kredituak aldatzeko 13 zenbakidun espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa kreditu gehigarri bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzaileak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzerik 2010eko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HAZIENDA BATZORDE INFORMATZAILEAK egindako aldeko txostena eta onarpen proposamena eta espedientean egindako gainontzeko jarduerak ikusita, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**-Udal honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehikuntza bidez kredituak aldatzeko 13 zenbakidun espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera:

### GASTUAK-GEHIKUNTZAK

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>GEHIKUNTZAREN PROPOSAMENA</b>
2.0201.870.000.00.01	Diru laguntza:Enpleguaren sustapena	10.000,00
2.0201.410.000.00.08	Diru laguntza:Goiena.	37.616,00
2.0201.710.000.00.05	Urbanizazioa:Olaeta Plaza	85.429,99



Aurrekontu osoa: 186.328,56 :

Bizilagunak.(iragazgaiztea)

45.000,00

IZARTU

55.898,57

UDALA

85.429,99

Proiektuak idaztea **50.000,00**

Kulunka: Galdara **2.564,14**

Enplegurako prestakuntzarako tailerrak **21.036,00**

Hiri-altzariak **40.354,80**

**GUZTIRA 247.000,93**

#### DIRU SARRERAK-FINANTZIAZIOA

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>FINANTZAZIO PROPOSAMENA</b>
----------------	-------------------	------------------------------------

2.0201.870.000.00.01 Diruzaintzako gerakina:Kreditu gehigarriak **213.643,93**

2.0201.410.000.00.08 E.J.-Diru laguntzak:Tokiko programak,jarduerak **21.036,00**

2.0201.710.000.00.05 E.J.-Diru laguntza: Irisgarritasuna. **12.321,00**

**GUZTIRA 247.000,93**

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez balego, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorrak onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzaileak egindako txostenaren berri jaso da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta



aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzerik 2010eko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **3.- GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETARI ETA HIRI HONDAKINEN TRANSFERENTZIA ETA TRATAMENDURAKO ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO ERREGELAMENDUARI AUZI ERREKURTSOA JARTZEA.**

2010eko ekainaren 18an argitaratu zen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuen aldaketaren behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; eta ekainaren 30ean, berriz, 2010eko ekainaren 3an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak behin betirako onartu ondoren Hiri Hondakinen Transferentzia eta Tratamendurako Zerbitzu Publikoa Kudeatzeko Erregelamenduaren testu osoa egindako aldaketekin.

Aldaketa horiek Udalarentzako zama handia direnez zama hori hartzea beharrezkoa ez denean, eztabaidatu ondoren, Alkateak egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako 6 udalbatzarkideren botoekin (Alkatea jauna, Leceta andrea, Barandiaran jauna, Agiriano jauna, Otamendi andrea eta Salaberria jauna), Leceta jaunaren eta Pierrugues jaunaren aurkako botoekin eta Eraña andrearen abstentzioarekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuen eta Hiri Hondakinen Transferentzia eta Tratamendurako Zerbitzu Publikoa Kudeatzeko Erregelamenduaren aldaketa behin betirako onartzeko erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsok jartzea.

Bigarrena: Udalaren abokatu Yolanda Lopez de Luzuriaga Beltran de Heredia izendatzea, eta prokuradore berriz honakoak:

- Donostiakoak: Ainhoa Kintana Martinez eta Saioa Etxabe Azkue.
- Bilbokoak: German Ors Simon eta Isabel Apalategui Arrese.
- Madrilgoak: Jose Luis Martin Jaureguibeitia eta Ana Isabel Lobera Argüelles.

Hirugarrena: Prokuradoreei auzietarako botere orokorra eta auzi horietarako botere berezia ematea.

Laugarrena: Alkateari ahalmena ematea notarioaren aurrean, eta Udalaren izenean, botere horiek prokuradoreei emateko.

*PIERRUGUES JAUNAK EGINDAKO BOTO AZALPENA: A nivel personal, no soy amigo de la incineración de los residuos sólidos urbanos porque en el balance entre las cuestiones a favor y en contra de la incineración, me inclino por el reciclaje integral. Sin embargo, como ya es conocido, el partido al que represento está a favor de la incineración en Gipuzkoa, por lo que mi voto va a ser contrario a la interposición de recurso contencioso a la modificación de Estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.*

Ni neu ez naiz hiri hondakin solidoak erretzearen aldeko, errausketaren aldeko eta kontrako kontuen balantzan birziklatze osoaren aldeko bainaiz. Hala ere, eta jakina denez, ordezkatzen dudan alderdia errausketaren alde agertu da Gipuzkoan, eta beraz, nire botoa Gipuzkoako Hondakin solidoen kontsortzioaren estatutuen aldaketari auzi errekurtsoa jartzearen aurkakoa izango da.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura hemerretziak eta hogei minututan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



### **1.- Ratificar la inclusión de asunto dentro del orden del día.**

A falta del preceptivo dictamen de la comisión informativa, el pleno acuerda por unanimidad ratificar la inclusión del siguiente asunto dentro del orden del día:

*INTERPOSICION DE RECURSO CONTENCIOSO A LA MODIFICACION DE ESTATUTOS DEL CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA Y A LA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DE GESTIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE TRANSFERENCIA Y TRATAMIENTO DE RESIDUOS URBANOS.*

### **2.- EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 13.**

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº 13, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO**.

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Igualmente se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora poniendo de manifiesto el incumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria, y señalando que no obstante no es necesario aprobar un plan económico financiero, hasta la liquidación del presupuesto 2010, a tenor de lo dispuesto en el art. 21 del Real Decreto 1463/2007, de 2 de noviembre por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre.

Visto el informe favorable y la propuesta de aprobación formulada por LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA y demás actuaciones practicadas en el expediente, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 13 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

#### GASTOS - AUMENTOS

<b>PARTIDA</b>	<b>DENOMINACIÓN</b>	<b>PROPUESTA DE AUMENTO</b>
2.0201.870.000.00.01	Subvención: fomento de empleo	10.000,00
2.0201.410.000.00.08	Subvención: Goiena.	37.616,00
2.0201.710.000.00.05	Urbanización: Olaeta Plaza	85.429,99

*Presupuesto total: 186.328,56:*



Vecinos.(impermeabilizacion)  
45.000,00  
IZARTU  
55.898,57  
AYUNTAMIENTO  
85.429,99

Redacción de proyectos	50.000,00
Kulunka: caldera	2.564,14
Taller de formación para el empleo	21.036,00
Mobiliario urbano	40.354,80

<b>TOTAL</b>	<b>247.000,93</b>
--------------	-------------------

#### INGRESOS-FINANCIACIÓN

<b>PARTIDA</b>	<b>DENOMINACIÓN</b>	<b>PROPUESTA DE FINANCIACIÓN</b>
2.0201.870.000.00.01	Remanente de tesorería: créditos adicionales	213.643,93
2.0201.410.000.00.08	Subvenciones GV: actividades de programa local	21.036,00
2.0201.710.000.00.05	Subvencions GV: Accesibilidad.	12.321,00
<b>TOTAL</b>		<b>247.000,93</b>

**Segundo.-** Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

**Tercero.-** Tomar cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora con motivo de dicho expediente y en el que pone de manifiesto el incumplimiento del objetivo de estabilidad



presupuestaria, y así como que no obstante no es necesario aprobar un plan económico financiero, hasta la liquidación del presupuesto 2010, a tenor de lo dispuesto en el art. 21 del Real Decreto 1463/2007, de 2 de noviembre por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre.

### **3.- INTERPOSICION DE RECURSO CONTENCIOSO A LA MODIFICACION DE ESTATUTOS DEL CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA Y A LA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DE GESTIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE TRANSFERENCIA Y TRATAMIENTO DE RESIDUOS URBANOS.**

El 18 de junio de 2010 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la aprobación definitiva de la modificación de los estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa; y el 30 de junio, una vez aprobados definitivamente las modificaciones del reglamento de gestión del servicio público de transferencia y tratamiento de Residuos Urbanos por la Junta General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en sesión celebrada el día 3 de junio de 2010, el texto completo con las modificaciones realizadas.

Debido a que dichas modificaciones suponen una gran carga para el Ayuntamiento cuando no es necesario asumir dicha carga, previo debate, de conformidad con la propuesta elevada desde la Alcaldía y el voto favorable de 6 corporativos presentes ( Sr. Alcalde, Sra. Leceta, Sr. Barandiaran, Sr. Agiriano, Sra. Otamendi y sr. Salaberría), el voto en contra del Sr. Leceta y Sr. Pierrugues y la abstención de la Sra. Eraña, el Pleno ACUERDA:

Primero: Interponer recurso contencioso administrativo contra el acuerdo de aprobación definitiva de la modificación del Reglamento de Gestión del Servicio Público de Transferencia y Tratamiento de Residuos Urbanos y contra los estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

Segundo: Designar a Yolanda López de Luzuriaga Beltran de Heredia como abogada del Ayuntamiento y como procuradores a las siguientes personas:

De Donostia: Ainhoa Kintana Martinez y Saioa Etxabe Azkue.

De Bilbao: German Ors Simón e Isabel Apalategui Arrese.

De Madrid: Jose Luis Martin Jaureguibeitia y Ana Isabel Lobera Argüelles.

Tercero: Conceder a los procuradores poder general para los juicios como poder especial para los mismos.

Cuarto: Facultar al Alcalde para que ante notario y en nombre del Ayuntamiento conceda dichos poderes a los procuradores.

*EXPLICACION DE VOTO DEL SR. PIERRUGUES: A nivel personal, no soy amigo de la incineración de los residuos sólidos urbanos porque en el balance entre las cuestiones a favor y en contra de la incineración, me inclino por el reciclaje integral. Sin embargo, como ya es conocido, el partido al que represento está a favor de la incineración en Gipuzkoa, por lo que mi voto va a ser contrario a la interposición de recurso contencioso a la modificación de Estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.*

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las diecinueve horas y veinte minutos. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**